



Aldundiak ondasun higiezin gaineko zergari buruzko informazioa eskainiko du hilaren 19tik 28ra kultura etxean

Arabako Foru Aldundiak, bulegoa jarriko du Lau-dioko Kultura Etxeko aretoetan eta herritarrek bertan euren etxebizitza edo lokalen balio katastrala zehatz zein den ezagutzeko aukera izango dute, eta ondorioz ondasun higiezin gaineko zergatik zenbat ordaindu beharko duten jakingo dute.

17 urte dira balio katastrala berrikusi ez zela eta Aldundiak orain berrikustea erabaki du, horrek herritarrek ordaindu beharreko ondasun higiezin gaineko zergan ondorio larriak ekarriko dituelarik.

Ondasun Higiezin gaineko zerga Udalak kobratzen du baina balio katastrala aintzat hartuta ezartzen da. Hau da,

Aldundiak higiezin bakoitzaren balioa erabakitzen du eta horrek laudioarren ekonomiarengan eragin zuzena izango du.

Arabako Foru Aldundiak aurkeztutako zenbait balorapen orientagarrien arabera, pisu batzuetako balio katastrala, egungoarekin alderatuta %50 handituko da.

Gauzak honela, Udalak, Bildu, PNV, PSE eta Omniaren aldeko botoekin eta PPren abstentzioarekin Ondasun Higiezin gaineko Zergaren aplikazioa %25 murriztu eta %0,3an utzi du (egun dagoen %0,4 baino puntu bat gutxiago). Kanpoko baldintzak behartuta ezin izan da legalki gehiago murriztu.

Nahiz eta Udalak murrizpen garrantzitsua egin, Aldundia-

ren erabakiak aipatutako zergaren gehikuntza larria suposatuko du Laudioko herritar askorentzat.

Arabako Foru Aldundiak, higiezin balio katastralaren inguruko zalantzak argitzeko eskaintzen duen aukera hau gal ez dezaten gonbita luzatzen diegu herritar guztiei.

Bulegoak urtarrilaren 19tik 28ra, astegunetan 9:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 17:30etara zabalik izango ditu ateak Kultura Etxean. Larunbatetan ere irekita egongo da 9:00etatik 14:00etara.

Halaber, gogoan izan Laudioko Udalak zerga hau eta beste batzuk zatika ordaintzeko aukera ahalbidetuko duela (honi buruzko informazio gehiago hurrengo ZUINean).

Laudio Udala Garapen Agentziak bosgarren Pintxo lehiaketarako izen emateko epea zabalik dagoela jakinarazi nahi du

Informazio gehiagorako 944 034 985 telefonoa edo comercio@laudiokoudala.net helbide elektronikoa

Afadesek zaintzaileei zuzendutako mobilizazio tekniken eta jarrera-ohituren inguruko hitzaldia antolatuko du hilaren 18an

Dementia duten pertsonak egoki mobilizatzeko teknikak eta euren zaintzaileei egunerokotasunean jarrera-ohitura zuzenak erakuste aldera, Afades elkarteak hitzaldia antolatuko du urtarrilaren 18an, arratsaldeko 16:30etartik aurrera Kultura Etxeko Arraño Aretoan. Hitzaldian Asier Merino Albaina fisioterapeuta izango da txosten-emailea. Sarrera libre eta doakoa.

Laudio Top Zinemak euskarazko "Katu bat Parisen" filma dakar

Hiru eremu desberdinetako filmak ikusgai izango ditugu hurrengo egunetan... guztia ere Laudio Top Zinemako eskaintza aberatsa handiago egitearren... kalitatezko filmak, ekoizpen handiak eta euskarazko proiektio bat. Eta guztia, bertatik bertara eta oso diru gutxiren truke!

- **Urtarrilak 21** EL NIÑO DE LA BICICLETA 17:30, 20:00. LHUIan. 2 € +7 urte

- **Urtarrilak 28** IN TIME 17:30, 20:00. LHUIan. 2 € +16 urte

- **Urtarrilak 29** KATU BAT PARISEN 17:30 LHUIan. 2 € AG.



URTARRILEKO AGENDA

Hilak 18:

- 16:30 mobilizazio teknikei buruzko hitzaldia Kultura Etxean.

Hilak 20, 21, 27 eta 28:

- Drumgorri hitzorduak
- Gaztelekuko hitzorduak

Hilak 21:

21:00 Luis Vil eta Igor Arzuagaren kontzertua Basalarrinan

Hilak 21 eta 28:

- Sorgin Zapatuak

Hilak 21, 28 eta 29:

- Audio Top Zinema LHUlan



Hilak 22 eta 27:

- Baisala hitzorduak.

Hilak 23, 24, 25 eta 26:

- 18:00 hezkuntza jardunaldiak balio anitzeko aretoan

Hilak 27 eta 28:

- Aldizkarien merkatu txikia liburutegian

Hilak 29:

- 11:30 Audioko Herri Krosa
- 19:00 musika bandaren kontzertua parrokiakian

IKUS 2. ORRIA:

- Sartuk antolatutako langabetuentzako ikastaroa

IKUS 3. ORRIA:

- Aiton amonetzako euskara ikastaroa
- Bertsolaritza ikastaroa

IKUS 4. ORRIA:

- Sahararen aldeko elikagai karabana

ETA GOGOAN IZAN...
www.laudiokoudala.net
 web gunean are informazio gehiago

Aldizkarien azoka txikia

Urtarrilaren 27an eta 28an Lamuzako liburutegian aldizkarien doako azoka txikia egingo da (egunkarien gehigarriak, musika, literatura, artea, moda, ekologia...). Pasa zaitze eta eraman etxera muxutruk atsegin duzun aldizkaria!

Laudioko V Herri Krosa urtarrilaren 29an

Datorren igandean, urtarrilaren 29an audioar HERRI KROSAren bosgarren edizioa egingo da. Aurreko edizio berari jarraiki, hasiberrientzako proba atletiko hau egunetik egunera antolatzen diren kirol eta kultura ekintza desberdinetan ere euskararen erabilera sustatze aldera antolatu da. Nobedadeak ere izango dira, batez ere ordutegiari so eginda, izan ere ohiko ordu eta eguna aldatu eta edizio berria domeka goizean, 11:30etan, abiatuko da zapatu

arrestian ordez. Aldaketa honekin logistika eta antolakuntza lanak erraztu nahi izan da eta horrexegatik korrikalari arruntentzako lasterketa hau, ordu egokiago baten abiatuko da, protagonisten erosoago ibil daitezten. Arabar atletismo Federakundeak egiaztatutako 10.000 metro lauetako ibilbide tradizionalarekin, proba hau distantzia luzeetan trebeak direnentzako zein lasterkari berrientzako egokia izango da ibil-

bidearen erraztasun eta edertasuna ahanzi gabe. Izen emateak urtarrilaren 1etik aurrera egin daitezke kirolprobak.com web-gunean edo lasterketaren egun berean, proba hasi baino ordu bete lehenago. Lasterketaren inguruko edozein zalantza argitzeko deitu 645732485 telefonora. Lasterketa berriz ere Audio Atletismo klubak antolatuko du eta Audioko Udalaren eta Basalarrinaren laguntza jaso du.



Lorea lurrin dendako eta Dastaketa gozotegiko erakuslehoak aurtengo onenak

Iragan abenduaren 20an, Apiliek antolatutako Audioko erakuslehoen XVIII txapelketako sari emate-gauzatu zen.

Saridunak honako hauek izan ziren:

Balorapen teknikoa

- 1.: Lorea lurrin denda
- 2.: Monai
- 3.: Kukuma
- 4.: Irusta lurrin denda
- 5.: Ana Mari arrandegia
- Aipamen bereziak: Kaskibel, Luyando optika eta Trenpea

Herri bozketa

- 1.: Dastaketa gozotegia
- 2.: Irusta lurrin denda
- 3.: Lorea lurrin denda
- Aipamen berezia: Modimel

Jasotako 1.300 boto baino gehiagoren artean 100 euroz kargatutako eta Nafarroako Baseritarren

Kutxak luzatutako bost merkataritza txartel zozketatu ziren eta hauek izan ziren saridunak:

- Nuria Hernaez García
 - Emilio Moscoso Naveira
 - Rubén Ibáñez Gómez
 - Irene Valer Renteria
 - Juan José Matesanz Rodríguez
- Apiliek, audioar merkatarien gustu ona, ahalegina eta erakusitako maila altua eskertu eta aintzat hartu du.

Gainera, Audioko erakuslehoak 2011ko Visual Sariatetan garaile

Kukuma, Lorea lurrin denda eta Ana Mari arrandegia, Arabako Merkataritza eta Industria Garbarak antolatutako merkataritza irudi onena aukeratzeko lehiaketako lehen bost postuetan izan ziren. Edizio honetara aurkeztu ziren 151

dendetatik, Kukumak lehen postua poltsikoratzea lortu zuen erakusitako lan bitxi, xume, koloretsu eta samurragatik. Lorea lurrin dendak erakusitako egitura koloretsu eta harrigarri-gatik jaso zuen bigarren saria. Ana Mari arrandegiak egindako sortze-espazio erakargarriak bosgarren saria eskuratu zuen.

Laudioko II Argazki Lehiaketa

Laudioko bigarren argazki lehiaketan burututako herri bozketak Ruben Ibañezen "Parkean" argazkia aurkeztutako onena zela erabaki du. Parte hartu zuten pertsonen arteko zozketako irabazleak hauek izan ziren: Julio González González (100 €-tako erosketa txartela) eta Jon Ander Carrero (50 €-tako erosketa txartela).

Langabetuei zuzendutako administrazio harremanei buruzko ikastaroa

Sartu Arabak "Administrazio harremanak bezeroekin" deituriko eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastaroa antolatuko du urtarrilaren er-

dialdera. Ikastaroa langabetuei zuzenduta egongo da. Bestek beste, negoziazio teknikei, telefono bidezko salmenta eta komunikazioari edo zuzeneko

salmentari buruzko moduluak eskainiko dira bertan. Izen emateak Lanbiden. Informazio gehiago Sarturen 94 672 77 73 telefonora.

GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"

LAMUZA 13 KALEA
 infogazte@audiokoudala.net
ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan
 16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



San Blas jaiko dibertsioa eta giro ona Aldai plazako azoka esparruan hilaren 28an



Urtarrilaren 28an, goizeko hamarretatik aurrera, musika, baserri eta kultura produktuen erakusketa eta salmenta, lehiaketak, haurrentzako jolasak, herri kirolak eta nola ez! Txerriaren erreketa eta pisatzea eta gure baserriarrei omenaldia zain izango ditugu Aldai Plazan San Blas eguna behar bezala ospatzeko eta gure tradizioei behar bezala eusteko. Hurbil zaitez eta gozatu San Blas egunaz!

Urte berriko bazkari erraldoiarekin paso emango diote Baisalakoek urtarrilari

Urte berriaren hasiera lagun artean eta mahai baten inguruan ospatzea eta dantzaldien egitarauarekin jarraitzea, Baisalako lagunak urtarileko bigarren hamabostaldian bete nahiko helburua izango da... eta zuek ere beraiekin bat egin dezakezue!

Hilak 22, igandea, 14:30etan, urte berria ospatzeko bazkaria Karrika jatetxean; eta jarraian dantza eta sorpresa piloa egongo dira. Interesatutako pertsona guztiek diru sarrera bete behar dute Baserritarren kuxako 3008-0200-42-1457764817 kontu korranteetan. Bazkide direnek 35 euro eta bazkide ez direnek 38 euro. Diru sarrera egiteko azken eguna urtarrilaren 17^a.

Hilak 27, ostirala, 22:30etatik aurrera, antzokian, elkarteko irakasle diren Verónica eta Sergiorekin dantza gaua.

Ruperto Urkijo bola toki klubak gure herriko kirola mantentzearen alde

Gure herriko kirol preziatuenetako bat ezerezean gera ez dadin, Ruperto Urkijo bola toki klubak bola jaurtiketa sesioak antolatuko ditu urtarrilaren 25etik martxoaren 21era bitartean, arratsaldeko bostetatik zazpietara bitartean Erroke Deuna bola tokian.

Kanpaina bere garaian ezagutzera emango diren Dolumin Barikuko eta Santa Krutz jaietako bola jaurtiketekin bukatuko da.

Txikienek ere kirol hau praktikatu dezaten, urtarrilaren 18an, arratsaldeko bostetatik aurrera Erroke Deunara hurbildu behar dira, euren izen emateak gauzatu ahal izateko.

Aitita-amamentzako euskara ikastaroak

Aurreko urteetan bezala, 2012an ere izango dira aitita-amamentzako euskara ikastaro bereziak. Eskolak hasi dira dagoeneko baina ekainaren 27an bukatuko dira. Astelehen eta asteazken guztietan (eskola-egutegiari jarraiki) burutuko da. Orduetara, 17:00-19:00 izango da eta, denetara 47 eskola egun eta 94 ordu izango dira.

Ikastaro honen helburua ez da goi mailako euskara ikasketak egitea, sarritan zaintzen diren bilobekin euskarazko oinarriko elkarrizketak izatea baizik. Erritmo apalagoa da eta, horregatik, edonork parte hartzeko.

Matrikulak 159,80 euro balio du eta ikasturte amaieran asistentzia nahikorik (gutxienez eskola orduen %85ean izatea) izanez gero, diru horren zati handi bat itzuliko zaie.

Ikastaroa hauek Laudio Udalak antolatzen eta



finantzatzeko bere Euskara Arloaren bitartez. Esparru akademiko eta kudeaketa AEKren Berbotz euskaltegiaren esku daude. Izen-emateak bertan egin daitezke dagoeneko: Zubiaur, 5 (Laudio) // 946726722.

Bertsolari izan nahi al duzu?

10-14 urte bitartekoa bazara eta astean ordubate (ostiraletan, 17:00-18:00 ordutegian) baduzu edota 16 urtetik gorakoa bazara eta astean ordubate eta erdi (as-

tearteetan, 17:30-19:00 ordutegian) baduzu...

Galdetu Euskara Arloan (euskara@laudiodakala.net // 944 034 890) eta zure amets hori egia

bihurtzeko bidea erakutsiko dizugu. Doan, gainera. Baina kontuz: lekuak mugatuta daude. A! Antolatzailea ez da edonolakoak: Arabako Bertsotzale Elkarteak!

XII. Hezkuntza jardunaldiak antolatuko ditu Laudio Ikastolak urtarrilaren 23, 24, 25 eta 26an



Ohi bezala, Hezkuntza jardunaldiak eskainiko ditu Laudio Ikastolak urtarrila amaieran. 0 eta 18 urte bitarteko ikasleen gurasoei eta heziketan aritzen direnei zabalduko hitzaldiak eskainiko dira Herriko Plazako udal gela balioaniztean arratsaldeko 18etatik aurrera. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da Baisalarrina Elkartean.

Sexu-hezkuntza eta haurren autonomia izango dira aurten jorratu diren gaiak. Gai bakoitzari buruzko hitzaldia birritan eskainiko da, euskaraz eta gaztelaniaz entzuteko eta parte hartzeko aukera bideratzeko asmoz.

Euskarazko hitzaldiak

Urtarrilaren 23an, astelehenean, "Gurasoen ohiko beldurrak seme-alaben sexu-hezkuntza" hitzaldia eskainiko da. Xarlingo erakundeko kide diren Alberto Lopez eta Nahia Rojok eskainiko duten ponentzian, sexualitate kontzeptu bera zertan den azalduko da, bai eta bere inguruan sortu ohi diren mito eta tabu ezberdinak eta heldu eta haurren sexualitatearen arteko ezberdintasunak, besteak beste. Oro har, familia esparruan seme-alaben sexu-hezkuntzari heltzean sortzen diren beldur eta kezka nagusiak aztertuko dira. Hitzaldi hau urtarrilaren 25ean, asteazkenean, gaztelaniaz eskainiko da ere.

Urtarrilaren 26an, ostegunean, "Haurren autonomia, ikusmira ezberdina" hitzaldia eskainiko du Txusma Azkonak. Haur Hezkuntzako irakasle honek Budapesteko Pikler-Loczy Institutioak gaiaren inguruan egindako ekarpena hurbilduko digu. Haur Eskola honen lan izugarria egin du hezitzaile eta familiekin haurtzararen ikuspegi desberdin batetik. Lan honen xede nagusia haurren izaeraren garapen armoniosu eta orekatua sustatzea da. Guzti honengandik badugu zer ikasia gure egunerokotasunean: mugimendu askatasuna, bazkari orduak, loa, gatatzak, fardel aldaketa... Hitzaldi hau bera gaztelaniaz eskainiko da urtarrilaren 24an, asteartea.

Berrikuntza askorekin datorkizu 2012 urte berriko SORGIN ZAPATUAK programa

Gogoan izango duzue, SORGIN ZAPATUAK euskararen erabilera eta ezagutzan eragiteko asmoz sortutako 5-12 urte bitarteko umeei zuzendutako aisialdi programa da. Zatoz eta ez

galdu lagunarteko jai hauek!!!

Urtarrilak 21: Ikuskizuna, askaria, lantegiak
Urtarrilak 28: kirigami lantegia eta askaria



Zinea eta musika euskalduna izango dira musika bandak hilaren 29an eskainiko duen kontzertuko ardatz

"BERTSO BAND, TRIKI ETA ZINEMA" lempaean, Errore Deuna musika elkarteak kontzertua eskainiko du urtarrilaren 29an, domeka, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Lamuzako Kepa Deuna parrokiaren. Besteak beste honako musika pieza hauek joko dituzte: "Bok Espok" (Kepa Junkera); "Love Story"; "El Rey León"; "Ihes betea zilegi balitz"; "Elizan sartu ziradenian"; "Harry Potter". Sarrera libre eta doakoa.

Rock eta blues doinuak berriz ere Drumgorri aretoa berotzen

Arrakadaren rock gogorra, Rei kimera tolosarren gitarrak, Monnshine Whiskey blues rock taldearen bertsiok eta Bluemor Blazek, hurrengo honetan aipatutako egunetan Drumgorri aretoa berotzeko ardura izango dute. Zuek eta zuzeneko musikaz gozatzeko nahiak ere bertan izango diren esperantzaz... hurbildu eta gozatu!

- Urtarrilak 20 ostirala doan - Arrakada
- Urtarrilak 21 larunbata 23:00 doan - Rei Kimera
- Urtarrilak 27 ostirala 23:00 doan - Moonshine Whiskey
- Urtarrilak 28 larunbata 23:00 doan - Bluemor Blaze

Gaztelekuak sexu eta maskara tailerrak eta ping pong txapelketa baten bitartez handiago egingo du bere eskaintza

Gaztelekuak aisialdia beste era batean pasatzeko aukera badagoela erakutsi nahi du eta horretarako hiru eskaintza berri luzatuko ditu urtarileko bigarren hamabostaldian. Sexualitate tailerra, ping pong txapelketa eta maskara tailerra zain izango dituzu Ugarte auzoan hurrengo egunetan (sarrera libre eta doakoa): Urtarrilak 20, ostirala: sexualitate tailerra Urtarrilak 21, larunbata: ping pong txapelketa Urtarrilak 27-28: maskara tailerra

Luis Vil eta Igor Arzuagak Mara mara aurkeztuko dute Basalarrinan



Urtarrilaren 21ean, gaueko bederatzietatik aurrera, Luis Vil eta Igor Arzuagak Mara mara, landu, jorratu eta argitara emandako azken lana aurkeztuko dute Basalarrinan. Zuzeneko musika atsegin baduzue, ez aukerarik galdu! Sarrera doan.

Oinaze emozionalari buruzko hitzaldia hilaren 25ean

Emakumeen sustapenerako Solastiar elkarte kulturalak oinaze emozionalari buruzko hitzaldia antolatuko du urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 16:30etatik aurrera Kultura Etxean. Hitzaldiaren txosten emaila Marian Urretxu izango da. Sarrera libre eta doakoa.

Laudioko mapa toponimiko digitala deskargatzeko

Ondo dakizunez, toponimia (leku izenen altxorra) da herri baten historia liburua, urte eta urteetan, gure aurreko hainbat belaunaldik utzitako arrastoa. Zer esanik ez, balio handia du ikerketa historiko, linguistiko eta abarerrako. Paregabekoa da, dituen bestelako bertuteren artean, gure herrietan behinola hitz egin den euskara ezagutzeko eta, areago oraindik, harekin identifikatzeko. Hori guztiagatik, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) "Ondare" izaera onartu zion toponimari. Baina ondare "ez materiala" da toponimia... Bestela esanda, galdu daitekeela inolako

arrastorik utzi gabe... Horregatik berebiziko garrantzia dute toponimiaren bilketa, ikerketa, estandarizazio (izen beraren aldaketa guztien artean bat bakan, egokiena, lehenestea) eta zabalkunde lanek. Premiaz heltzeko zereginak, bestetik, modernitateko produkzio-sistemen aldatetako direla-eta, izen asko eta asko betiko galtzeko arrisku biziaren daudelako. Beranduegi bada ere, gure eskualdean toponimia biltzeko saiakera batzuk egin dira azken urteotan. Eta egindakoa, udalerrri bakoitzeko mapa toponimiko topografikoetan islatzen ari da

arian-arian. Lanabes bikaina, du-darik gabe. Baina mapak egiteak edo gorderik izateak ez dute ezertarako balio: **izen bat galdu ez dadin erabili egin behar da.** Zu zeu ere izen horien erabiltzaile eta, ondorioz, "salbatzaile" izan zaitez, HEMEN duzu eskuragarri, Audioko mapa eta baita bere atzeko aldeko ortoargazkia (airetik egindako argazkiak).

Mapa:
<http://dl.dropbox.com/u/55632495/AUDIO.jpg>

Ortoargazkia:
<http://dl.dropbox.com/u/55632495/AUDIOORTO.jpg>

10 urte ura aurrezten Aiaran

Kantauriko Urkidetzak, Aiarako Ur Partzuergoak, hamarkada bat daruma kontzientziazioan eta hezkuntzan lanean eta hori txiki nahiz nagusientzako egindako kanpainetan lortutako emaitza onekin ospatu du.

Kontsumo emaitzek argi erakusten dute: Aiarako haranak ura aurreztearekiko eta uraren kultura berriarekiko konpromisoa du. Ura geroz eta modu arduratsua goan kontsumitzen dugu: Kontsumoek behera egiten dute urtero.

Horrela, aldikia, komunikazio batzuk jartzen dira abian, gomen-diok emanez eta ura aurrezteko zero kostuko mekanismo kopuru mugatu batzuk eskainiz. Gainera, Partzuergoak ikasleentzako programa aktibatzen du; presara eta partzuergora bisitak egiten dira eta muralen lehiaketa bat antolatu-tzen da. Aiarako bizilagunei zuzendutako "5 minutuko aurreztea" kanpainak harrera ona izan du.

"5 minutuko aurreztea" kanpaina abian jarri eta egun gutxi batzuen ondoren, aholku ugari jaso dira Aiarako bizilagunengandik.

Egun gutxitan gainditu egin da aurreikusten zen parte-hartzea. www.kantaurikourkidetza.net web orrialdearen bidez bidalitako aurrezteko lehendabiziko 100 aholkuek bainugelak jartzeko eta kontsumo kontrolatzeko harea-erlajuak jasoko dituzte.

"Ura aurrezten dut" lehiaketan lehen hezkuntzako 4. mailako 300 ikasle bakoitzeko 17 gelak parte hartu dute. Aurten hezkuntza programan par-

te hartu duten 320 ikasle 306k "Ura aurrezten dut" 2. lehiaketan parte hartu dute, aurreko ikasturtearekin alderatuz parte-hartzea nabarmen handituz. Guztira, Arteko Gure Ama Eskola, Fabián Legorburu, La Milagrosa, Lamuza, Audioko ikastola, Lucas Rey, Etxaurren, Lateorro eta Virgen Niña ikastetxeetako lehen hezkuntzako 4. mailako 17 gelak beren murala egin dute ura aurrezteko aholku batzuekin. Bigarren urtez jarraian, Fabián Legorburuko ikasleak suertatu dira irabazle.



Bat egizu Sahararen aldeko elikagai karabanarekin

Saharar arabiar errepublika demokratikoaren aldeko euskal elkarte koordinakundeak, saharar ilargi Erdi Gorriaren ere saharar emakumeen batasun nazionalaren deialdiarekin bat egin eta berriz ere SAHARAREKIN BAT EGITEN DUEN EUSKAL KARABANA: ESPERANTZA BATEN ALDE, martxan jarri du. Elkartasuna adierazteko egitasmo honen bitartez, Aljeriako Tindouf desertuan bizi

diren saharar errefuxiatuen elikadura krisialdiari aurre hartu nahi da, Saharar Herriak behar dituen elikagaiak luzatuz. Aurreko urteetan burututako karabanen ostean aurtengo edizioak, ahal izanez gero, emaitza hobeak lortzeko xedea du. Horretarako, azukrea, arroza, pasta, lekak, atuna, sardinak oliotan eta konpresak jasoko dira eta, udal-ekarpe

nekin erositako bigarren eskuko kamioietan bidaliko dira Tindoufera. Zuek ere zuen elkartasuna adierazi nahi baldin baduzue, jakizue, aipatutako produktuak udal-erakundeetako beheko solairuan kokatutako Herritarrentzako Harrera Zerbitzuan utzi ditzakezuela, **9.00etatik 14.00etara bitartean, astelehenetik ostiralera, 2012ko otsailaren 3a arte.**

Memoria historikoaren berreskurapena

Auzokide talde batek gerra eta gerra oste urteetan gure herrian gertatutakoaren memoria historikoa berreskuratzen nahi du. Inoiz ez da horren gainera informaziorik eman eta uste dugunaren arabera, informazio hori landu ere ez da egin. Taldeak gure iragan hurbila ezagutzeko dagoen hutsunea betetzeko beharrezkoak diren ikerketa eta eki-

menak burutu nahi dituzte. Frankismoaren biktimekiko egia, justizia eta onarpene bilatzea eta orduan gertatutakoak zein gure nagusiek horien gainean izan zituzten bizipenak ezagutzeko ere taldearen helburu dira. Lehengo txanda honetan, hilabete bateko apean Gerra Zibilean preso, hilda, ihesean edo errepre-

sioa jaso zuten audioarrei buruzko informazioa jaso nahi du taldeak. Hala ere, egun sortutako taldea, mota guztietako kolaborazioak onartzeko prest dago: informazioa, argazkiak, agiriak... parte hartu nahi dutenek 689 757 744 telefonora edo laudiomemoria@gmail.com posta elektronikora jo dezakete.